# BAZTERTUTAKO GATAZKAK

# CONFLICTOS SILENCIADOS

Antolatzailea / Organizado por:

**Berdintasun eta Lankidetza Atala**
**Sección de Igualdad y Cooperación**





# BAZTER-TUTAKO GATAZ-KAK CON-FLICTOS SILEN-CIADOS BAZTER-TUTAKO GATAZ-KAK CON-FLICTOS SILEN-CIADOS BAZTER-TUTAKO GATAZ-KAK CONFLIC-TOS SILENCIA-DOS BAZTER-TUTAKO GATAZ-KAK CON-FLICTOS SILEN-CIADOS

Gatazka batzuek interes handia sortzen dute. Beste batzuek, ordea, batere ez. Arrazoia? Palestinako eta Irakeko gatazkei buruzko bonbardaketa mediatikoa jasotzen dugu maiz, hala ere eztabaidagarria da informazio mordo horrek benetako arrazoiak ezagutzeko bidea ematen digun edota justizia egin dadin laguntzen duen. Bestalde, ez da ezertxo ere esaten Sri Lankako edota Txetxeniako gatazkei buruz. Eta nazioarteko erkidegoak beste aldera begiratzen du. Arrazoia? Jardunaldi hauen bitartez isitasun hori hautsi nahi dugu, galdera horien erantzunak bilatu eta isiltasunaren aurka borrrokatzen diren herri hauen errealitatea ezagutarazi.

Hay conflictos que suscitan mucho interés. Otros, ninguno. ¿Por qué? Hay veces que asistimos a un bombardeo mediático sobre conflictos como el palestino o el iraquí, aunque es discutible que esa avalancha de información nos esté ayudando a conocer sus verdaderas causas o colaborando a que se haga justicia. Mientras tanto, un silencio completo pesa sobre otros conflictos como el de Sri Lanka o el de Chechenia. Y la comunidad internacional mira para otro lado. ¿Por qué? Con estas jornadas queremos romper el silencio, buscar las respuestas a estas preguntas y dar a conocer la realidad de estos pueblos que luchan también contra el silencio.

Antolatzailea / Organizado por:
**Berdintasun eta Lankidetza Atala /** Sección de Igualdad y Cooperación

Ez diegu gatazka horiei “ahaztuak” deitu nahi izan. Gure planetan gatazka mordoa dago baina lehen, bigarren eta hirugarren mailako gatazkak daude, bakoitzaren atzean dauden interesen arabera: potentzia handien eta nazio arteko enpresen diruzalekeria erakartzen duten interes geoestrategikoak eta ekonomikoak; antzinako kolonien eta informazio agentzia nagusien kokaleku diren metropolien arteko lotura zaharrak, edota oraindik ere mantentzen den estereotipoa, zeinaren ustez ekialderantz begiratuz 2 gauza soilik aurki daitezkeen: hondamendiz eta basakeriaz betetako lurrak edota gure kontsumorako postal turistikoak.





# ISILTASUNAREN ATZEAN DAGOEN ERREALITATEA
## LA REALIDAD DETRÁS DEL SILENCIO

**Donostiako Udal Batzar Aretoa**
Salón de Plenos del Ayuntamiento de Donostia
Osteguna / Jueves / **19:00**
Maiatzak **6** Mayo

**Hizlaria /** Ponente:
**Manuela Mesa**

Txetxenia, Yemen, Balutxistan, Somalia, Sri Lanka,...ia ez dugu gatazka horiei buruzko berririk izan; herrialde horietako biztanleak hainbeste urtetako gatazken ondorio larriak sufritzen ari dira, baita ahanzturarenak ere. Zergatik isilarazten dira gatazka horiek eta zergatik agertzen dira beste gatazka batzuk egunero komunikabideetan? Askotan gatazkak terrorismora, etnia arazoetara edota barne-arazoetara murrizten dituen diskurtso ofizialaren atzean bestelako interesak ezkutatzen dira.

Zer dago aipatutako gatazkei eta beste askori buruzko isiltasunaren atzean?

Hizlaria: **Manuela Mesa**

Nazioarteko gatazketan eta garapenean eta bakean oinarritutako hezkuntzan aditua. CEIPAZ-Cultura de Paz Fundazioaren zuzendaria, Bakearen aldeko Ikerketako Espainiako Elkartearen presidentea eta irakaslea izateaz gain, hainbat master, ikastaro eta mintegi eskaintzen ditu.

Chechenia, Yemen, Baluchistán, Somalia , Sri lanka...son conflictos de los que apenas oímos hablar, son pueblos cuyas poblaciones están padeciendo las gravísimas consecuencias de tantos años de conflicto y olvido. Porqué se silencian estos conflictos y otros están a diario en los medios de comunicación? Detrás del discurso oficial que en muchas ocasiones reduce los conflictos a un problema de terrorismo o a conflictos étnicos o internos se mueven otra serie de intereses.

¿Qué hay detrás del silencio ante estos y otros conflictos?

Ponente: **Manuela Mesa**

Especialista en conflictos internacionales y educación para el desarrollo y la paz. Directora de CEIPAZ-Fundación Cultura de Paz y presidenta de la Asociación Española de Investigación para la Paz, además de profesora y docente en diversos másters, cursos y seminarios.





# DOKUMENTALA: “CHECHENIA LAS 3 HABITACIONES DE LA MELANCOLÍA”
## DOCUMENTAL: CHECHENIA LAS 3 HABITACIONES DE LA MELANCOLÍA

**Arrasate kaleko kutxa Aretoa**
Sala Kutxa de la calle Arrasate
Ostirala / Viernes / **19:30**
Maiatzak **7** Mayo

**Zine Klub Kresala /** Cine Club Kresala
**Dokumentala /** Documental

Filmak Txetxenian, hots, gerra amaigabe batean murgilduta dagoen herrialdean bizi diren neska-mutilen adimenaren zaurgarritasuna islatzen du. Zaurgarritasun hori konpontzeko helduen gaitasun ezak belaunaldi berezi bat sorrarazten du; gorrotoa haiengan sortzen dela eta hortaz, horren arrazoiak bilatzeko beharrik ez dagoela uste dutenen belaunaldia. Belaunaldi hori osatzen dutenak beti egongo dira malenkoniaz inguratuta eta gorroto-krisiak izango dituzte ustekabean. San Petersburgoren parean dagoen Kronstadt irlan umezurtz ziren mutilentzako akademia militar bat sortu zen. Bertan, mutilei soldadu izaten eta txetxeniarrak etsaitzat hartzen irakasten zaie. Txetxeniarrak gainditzen badituzte soilik izango dira aberriaren heroi. Txetxenian, Xhadizhat Gataevak ama lanak egiten ditu erabat suntsituta dagoen Grozny hiriko hondakinetan aurkitutako 63 umezurtzekin. Haien aita eta ama gehienak erailak izan ziren. Xhadizhat bera ere Groznyko umerzurtz-etxe batean egon zen sei urte zituenean. **Nazioarteko 10 jaialditan saritua izan den Pirjo Honkasaloren dokumental izugarri honek protagonisten begiradaren atzean gordetzen diren sentimendu guztiak islatzea lortzen du.**

La película retrata la vulnerabilidad de la mente de las y los niños que viven en Chechenia, un país inmerso en una guerra interminable. La incapacidad de las personas adultas para resolverla, da origen a una generación que piensa que el odio nace en ellas mismas, que no existe necesidad de buscar las causas. Toda su vida estarán acompañadas por la melancolía y por imprevistos ataques de odio. En la isla de Kronstadt, frente a San Pe-tersburgo, se fundó una academia militar para chicos huérfanos. Allí son adiestrados como soldados, mientras se les inculca que sus enemigos son los chechenos, y sólo si logran su derrota definitiva se convertirán en héroes de la patria. En Chechenia, Xhadizhat Gataeva hace de madre de 63 huérfanos recogidos de las ruinas de la devastada ciudad de Grozny. Casi todos sus padres y madres fueron asesinadas. La misma Xhadizhat, a los seis años, estuvo en un orfanato en Grozny. **Este gran documental de Pirjo Honkasalo premiado en 10 festivales internacionales consigue transmitir todos los sentimientos ocultos en la mirada de sus protagonistas.**





# BALUTXISTAN: MAPATIK KANPO DAGOEN LURRALDEA

## BALUCHISTAN: LA TIERRA FUERA DEL MAPA

**Koldo Mitxelena**
Asteazkena / Miércoles / **19:30**
Maiatzak **12** Mayo

**Hizlaria /** Ponente:
**Karlos Zurutuza**

Bagera Elkartearekin antolatuta (Hitzaldia euskaraz izango da)

Balutxistaneko biztanleak Iran, Pakistan eta Afganistaneko mugengandik banatuta daude. Gatazka herri hau aipatutako mugengandik banatua izan zenean hasi zen. Balutxistan exotikoa bezain ezezaguna da guretzat, herri horri buruzko informazioa apenas iristen zaigulako.

Badirudi munduak balutxeak ahaztu dituela, baina ez haien lurretan dauden balio energetiko eta estrategiko handiko altxorrak.

Hizlaria: **Karlos Zurutuza**

Karlos Zurutuza euskal kazetariak balutxeek nazioartean haien herriaren egoera ezagutarazi duten informatzaileak saritzeko eskaintzen duten Nawab Akbar Khan Bugti saria irabazi zuen. Balutxistani buruz GARA egunkarian argitaratu dituen erreportajeengatik ere saritua izan da Zurutuza.

Coorganizado junto a Bagera Elkartea. (La charla será en euskara).

Las y los baluches viven separados por las fronteras de Irán, Pakistán y Afganistán. La batalla se libra desde que este pueblo fuera dividido entre estas fronteras. Baluchistán nos resulta tan exótico como desconocido, pues apenas obtenemos información de este pueblo.

Parece que el mundo se ha olvidado de los y las baluches, pero no de los tesoros de enorme valor energético y estratégico que hay bajo sus sandalias.

Ponente: **Karlos Zurutuza**

El periodista vasco Karlos Zurutuza fue galardonado con el premio Nawab Akbar Khan Bugti, que concede la diáspora baluche para reconocer a los y las informadoras que han dado a conocer la situación que padece este pueblo a nivél internacional. Zurutuza ha sido premiado por la serie de reportajes sobre Baluchistán que se han publicado en GARA.





# SRI LANKA: AMAIERARIK GABEKO GATAZKA BATEN ALDERDI ANITZAK

## SRI LANKA: LAS MULTIPLES FACETAS DE UN CONFLICTO INTERMINABLE

**Koldo Mitxelena**
Osteguna / Jueves / **19:00**
Maiatzak **13** Mayo

**Hizlaria /** Ponente:
**MCM. Iqbal**

Gobernuaren eta Tamil Lurraldearen Askapenaren aldeko Tigreak izeneko mugimendu matxinatuaren arteko gatazka armatuak markatu du Sri Lankako historia. Gatazka 1983an hasi zen aipatutako mugimenduak Sri Lankan bizi zen eta politikoki, ekonomikoki eta sozialki baztertuta zegoen Tamil herriarentzat Estatu bat aldarrikatzen hasi zenean. 2002ko su-etenak hiru urte iraun zituen arren, 2006an gatazka berriz ere piztu zen. Gatazka horrek 65.000 hildako baino gehiago eragin ditu.

Hizlaria: **MCM. Iqbal**

Sri Lankako Egiaren Batzorde biren idazkaria izan zen, herrialdearen hegoaldean gertatutako 30.000 ( edo gehiago ) desagertze bortxatuak ikertzeaz arduratzen direnak. Giza Eskubideen Batzorde Nazionalean aholkulari izan zen, baita gobernuak ikerketa batzorde baten lanak gainbegiratzeko gonbidatu zuen Nazioarteko Talde Independentean ere. Iqbalek heriotza mehatxuak jaso zituen eta horregatik, 2007an bere herria utzi eta Europara bizitzera etorri zen.

La historia de Sri Lanka ha estado marcada durante años por un conflicto armado entre el gobierno y el movimiento insurgente de los Tigres de Liberación Tamil. El conflicto comenzó en 1983 para reclamar un estado para la población tamil residente en Sri Lanka que se había visto discriminada política, económica y socialmente. En 2002 hubo un alto al fuego que duró tres años, pero desde 2006 el conflicto empezó de nuevo. Este se ha cobrado ya más de 65.000 víctimas mortales.

Ponente: **MCM. Iqbal**

Fue secretario de dos de las Comisiones de la Verdad de Sri Lanka, que investigaron las 30.000 o más desapariciones forzadas que se produjeron en el sur del país. Fue Consultor en la Comisión Nacional de Derechos Humanos y asesor del Grupo Internacional Independiente invitado por el gobierno para observar los trabajos de una comisión de investigación. Iqbal recibió varias amenazas de muerte por lo que a finales de 2007 abandonó el país y actualmente reside en Europa.





# BIRMANIA. DOKUMENTALA: BURMA VJ´S
## BIRMANIA. DOCUMENTAL: BURMA VJ´S

**EHUko Ikasgelategiko Auditoriuma**
Auditorio del Aulario de la UPV
Asteazkena / Miércoles / **11:30**
Maiatzak **19** Mayo

**Solasaldia /** Coloquio: Zigor Aldama
**Dokumentala /** Documental

Filma honek, berea bezain isolatuta dagoen herrialde batetik informatzearen alde borrokan dabiltzan berri-biltzaile birmaniarrengana hurbiltzen gaitu. Torturaren eta biziarteko kartzelaren arriskuari aurre eginez, ezerk ez ditu Burma Videojockey gazteak geldiarazten Rangun hiriko kaleetan erreportajeak egiteko orduan. Kazetaritzako material hori kontrabando bilakatzen da herrialdetik ateratzeko eta Birmaniara satelite bidez itzultzen da nazioarteko komunikabideen bitartez. Dokumental hau Polizia Estatu bateko arrisku handiko kazetaritzari eta disidentziari begiratzeko modu paregabea izateaz gain, 2007ko irailean jazotako gertakari historiko eta dramatikoei buruzko dokumentu osoa ere bada. **Burma VJ dokumental onenari Oscarrerako hautagai izan zen eta nazioarteko sari ugari irabazi ditu.** Ondoren solasaldi bat egongo da **Zigor Aldamaren** esku. Zigor, Euskal Herrian dagoen Asiari buruzko erreferentzia informatibo nagusia da. Euskalasia erakundearen kide sortzailea izandakoa da eta gaur egun lehendakaria. Birmaniatik kanporatu zuten, 2007ko manifestaldiei buruz informatzeko lanetan ari zenean. Gaur egun Shangaiko hirian bizi da, baina bere lan eremua Ekialde Urruneko eskualde osora zabaltzen da.

Este film nos acerca a los y las reporteras birmanas que luchan por informar desde un país tan aislado como el suyo. A pesar del riesgo de tortura y cadena perpetua, los y las jóvenes Burma Video Jockeys, no se detienen ante nada a la hora de realizar sus reportajes desde las calles de Rangún. El material periodístico se convierte en contrabando para sacarlo del país y vuelve a Birmania vía satélite y a través de los medios internacionales. Este documental es una visión única del periodismo de alto riesgo y de disidencia en un estado policial y, al mismo tiempo, un documento íntegro sobre los históricos y dramáticos hechos de septiembre de 2007. **Burma VJ´s, ha estado nominado al Oscar como mejor documental y ha sido ganadora de numerosos premios internacionales.** Posteriormente habrá un coloquio con **Zigor Adama**. El es la principal referencia informativa sobre Asia en el País Vasco. Es socio fundador y actual presidente de la organización Euskalasia. Fue expulsado de Birmania cuando estaba cubriendo las manifestaciones del 2007. Reside actualmente en la ciudad de Shanghái, aunque su campo de acción se extiende por toda la región de extremo oriente.

No hemos querido llamar a estos conflictos olvidados. Son muchos los conflictos que hay en nuestro planeta, pero hay conflictos de primera, segunda y tercera clase, dependiendo de los intereses que subyacen detrás de los mismos: intereses geoestratégicos y económicos que atraen la codicia de las grandes potencias y empresas transnacionales, vínculos que persisten entre las antiguas colonias y las metrópolis de donde son las principales agencias de información, o el estereotipo que aún se mantiene según el cual, cuanto más hacia el este y hacia el sur dirigimos la mirada, sólo se pueden hallar 2 cosas: tierras de destrucción y barbarie o postales turísticas para nuestro consumo particular.





# TXETXENIA: PRESONDEGI BAT AIRE ZABALEAN
## CHECHENIA: UNA PRISIÓN AL AIRE LIBRE

**Koldo Mitxelena**
Osteguna / Jueves / **19:00**
Maiatzak **20** Mayo

**Hizlaria /** Ponente:
**Oksana Chelyseva**

Txetxenian ohikoak dira herritar zibilen aurkako errepresioa eta gehiegikeriak. Egonkortasunaren eta susperraldiaren gezurrezko irudiaren atzean (Kadírov gobernu buru delarik) erregimen totalitario bat ezkutatzen da. Erregimen horrek guztiz ikaratu ditu herritarrak inolako zigorrik jaso gabe haiek bahitu, torturatu eta erailtzen dituzten segurtasun-indarren bidez. Txetxenia 1999tik hermetikoki itxita dago, izan ere, Errusiako agintariek sarrera librea debekatu diete nazioarteko kazetari, behatzaile eta laguntza humanitarioko langileei. Eskualdea zulo beltz bat da, non gertatzen den guztia isilarazita dagoen.

Hizlaria: **Oksana Chelyseva**

Kazetaria, Informazio Agentzia Errusiar-Txetxeniarraren zuzendaria. 2006an, Nazioarteko Amnistiaren gatazka egoeretako kazetaritzari saria jaso zuen. Txetxeniako giza eskubideak aldarrikatzen zituen Errusiako GKE baten kide izan zen. Errusiako gobernuak antolakunde hori itxi zuen balizko estremismo bat egotzita. Orduz geroztik, atzerrian bizi da mehatxu ugari jaso ondoren.

En Chechenia la represión y los abusos contra la población civil son comunes. La falsa imagen de estabilidad y recuperación, con Kadírov al frente del Gobierno, esconde un régimen totalitario que ha propagado el terror entre la población mediante unas fuerzas de seguridad que secuestran, torturan y asesinan con total impunidad. La región, una zona herméticamente cerrada desde 1999, a la cual las autoridades rusas han prohibido el acceso libre a periodistas, observadores/as y a los y las trabajadoras internacionales de ayuda humanitaria, es un agujero negro donde todo se produce en silencio.

Ponente: **Oksana Chelyseva**

Periodista, directora de la Agencia de Información ruso-chechena. En el 2006 ganó el premio de Amnistía Internacional al periodismo en situación de conflicto. Formó parte de una ONG rusa de apoyo a los derechos humanos en Chechenia que fue clausurada por el Gobierno ruso alegando un supuesto extremismo, por lo que se ha visto obligada a vivir en el exilio después de haber recibido múltiples amenazas.





# YEMEN: GEROZ ETA ZALANTZA-GARRIAGOA DEN ETORKIZUNA
## YEMEN: UN FUTURO CADA VEZ MÁS INCIERTO

**Koldo Mitxelena**
Osteguna / Jueves / **19:00**
Maiatzak **27** Mayo

**Hizlaria /** Ponente:
**Txente Rekondo**

Nazioartean berriki gertatutako jazoera batzuk Yemen egoera arriskutsu bilakatu daitekeen zerbaiten erdian kokatu dute. Hori eta Yemeneko Estatuak berak dituen gabezia larriak ere kontuan hartuta hainbat analistek adierazi dute Yemen “huts egiten duten Estatuen” zerrendan sar daitekeela, jada sartu ez bada behintzat. Aurreko udaran jada oso kaltetuta zegoen egoera yemendarra zaildu zezaketen hiru gatazken bat-egitea jakinarazi zuten iturri askok: gobernuaren eta iparraldeko xiita erreboltarien arteko liskarrak;

Sanaaren erantzun bortitza jaso duten hegoaldeko aldarrikapen separatistak; eta Al Qaedaren hedapena...hiru arrazoi horiek nahikoa dira benetan “leherkaria” den eszenatoki bat deskribatzeko.

Hizlaria: **Txente Rekondo**

Txente Rekondo kazetaria da, nazioarteko analista eta Nazioarteko Ikerketarako Euskal Bulegoko kidea .

Algunos recientes acontecimientos en la escena internacional están situando a Yemen en el centro de lo que puede convertirse en una peligrosa situación. Y a ello hay que sumarle además las serias carencias que el propio estado yemení presenta y que han llevado a diferentes analistas a señalar la posibilidad de que este país acabe sumándose a la lista de “estados fallidos”, si no lo ha hecho ya. Desde el pasado verano muchas fuentes señalaban la confluencia de tres conflictos que podían poner en serios apuros a la ya de por sí deteriorada situación yemení. Los enfrentamientos entre las fuerzas gubernamentales y los y las rebeldes chiitas del norte; las demandas separatistas en el sur, con la violenta respuesta de Sanaa; y el incremento de la presencia de Al Qaeda, eran motivos más que suficientes para ubicarnos ante una escenario “explosivo”.

Ponente: **Txente Rekondo**

Txente Rekondo es periodista , analista internacional y miembro de la Oficina Vasca de Análisis Internacionales.






# SOMALIA: HUTS EGIN DUEN ESTATU BATEN ARRAZOIAK
## SOMALIA: CAUSAS DE UN ESTADO FALLIDO

**Koldo Mitxelena**
Astelehena / Lunes / **19:00**
Maiatzak **31** Mayo

**Hizlaria /** Ponente:
**Itziar Ruiz-Giménez**

Laurogeita hamar hamarkadaren hasieratik, Somalia gatazka beliko batean murgilduta egon da, gobernu zentralik gabe, "kolapsatutako" estatuen paradigma bihurturik. Irailaren 11ko atentatuen ondoren nazioarteko agenda politikoan berebiziko garrantzia hartu zuen berriro ere, hainbat gaizkile-talderen santutegia zela kontsideratu zelako, hala nola "gudako jaunena", Al Qaida sarearena, itsas piratena eta baita beste kriminal sare batzuena ere. Beraz, bertako segurtasunarentzat ez ezik mundu osoaren segurtasunarentzat mehatxu bat dela kontsideratzen da. Irudi hori gatazka honen konplexutasuna ondo ulertzeko oztopo bat suposatzen du, izan ere, jatorri anitzen ikuspuntutik aztertu beharreko gatazka bat da, non herri honen azken hamarkaden historia eta politika erakustera eman behar den, bertan jarduten duten tokiko, eskualdeko eta nazioarteko eragileak erakutsaraziz.

Hizlaria: **Itziar Ruiz-Giménez**

Nazioarteko Harremanetan doktorea, Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Ikasketa Afrikarren Taldearen koordinatzailea eta Nazioarteko Ikasketen Taldeko kidea. Afrikako gatazkak ikertzen ditu.

El ataque al buque pesquero Alakrana ha puesto de actualidad a este país, considerado el más pobre del cuerno de África, y sumergido desde principios de los 90 en un conflicto bélico, sin gobierno central y convertido en el paradigma de los llamados estados "colapsados". Tras los atentados del 11 de septiembre volvía a tener una gran relevancia en la agenda política internacional al considerársele como un santuario de los "señores de la guerra", de la red Al Qaida, de piratas navales y otras redes criminales. Esta imagen distorsiona y dificulta comprender la complejidad de un conflicto que debe abordarse desde una perspectiva multicausal en la que se tenga en cuenta la historia y la política de ese país en las últimas décadas y en la que se haga visible el conjunto de actores locales, regionales e internacionales que operan en el país.

Ponente: **Itziar Ruiz-Giménez**

Doctora de Relaciones Internacionales, Coordinadora del Grupo de Estudios Africanos y miembro del Grupo de Estudios Internacionales de la Universidad Autónoma de Madrid. Investigadora en el tema de conflictos armados en África.






# ERAKUSKETA. TXETXENIA: ISILTASUNA HAUTSIZ
## EXPOSICIÓN. CHECHENIA: ROMPIENDO EL SILENCIO

**EHUko zuzenbide fakultatean /**
Facultad de Derecho de la UPV
Maiatzak **1/13** Mayo

**Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusia /**
Biblioteca Central de Alderdi Eder
Maiatzak **18** Mayo **–** Ekainak **17** Junio

**Erakusketa**
Exposición

Liga dels Drets dels Pobles elkarteak egindako argazki erakusketa honen helburua da Txetxenia ahanzturatik ateratzea eta hamarkada bat baino gehiago geroztik Errepublika horretako biztanleak bizi duten ikara (inguruko Herrietan zehar zabaltzen ari den ikara) salatzea.

Irudi hauek hartu dituzten argazkilariak herrialde ezberdinetako profesional entzutetsuak dira, hala nola, Eric Bouvet, Heidi Bradner, Teimuraz Gahashvilli, Stanley Greene, Musa Sadulayev, Enrique del Viso eta Hedí van Wesse. Argazkilari horiek izen handiko nazioarteko sariak jaso dituzte (adibidez, World Press Photo Awards) eta egin dituzten erreportajeak Times, Newsweek, Reuters eta The Herald Tribune bezalako agentzia eta komunikabideetan argitaratu dira.

Esta exposición fotográfica realizada por la Liga dels Drets dels Pobles quiere rescatar a Chechenia del olvido y denunciar la situación de terror en que vive la población de esta república desde hace ya más de una década, terror que se está extendiendo por los países vecinos.

Fotógrafos y fotógrafas que han realizado estas imágenes son grandes profesionales de diferentes países (Eric Bouvet, Heidi Bradner, Teimuraz Gahashvilli, Stanley Greene, Musa Sadulayev, Enrique del Viso, Hedí van Wesse) quienes han recibido prestigiosos premios internacionales como el World Press Photo Awards y cuyos reportajes son publicados en importantes medios y agencias como Times, Newsweek, Reuters o The Herald Tribune entre otros.



# Para ver claro, basta con cambiar la dirección de la mirada.

**Antoine de Saint-Exupery**
(1900-1944)

*

**JARDUNALDIETARAKO ASISTENTZIA UNIBERTSITATEKO KREDITUEKIN BALIOZTATUKO DA**

LA ASISTENCIA A ESTAS JORNADAS SE CONVALIDARÁ CON CRÉDITOS UNIVERSITARIOS

**INTERESA DUTEN PERTSONEK IZENA EMAN BEHARKO DUTE TELEFONOZ EDO E-MAILEZ**

LAS PERSONAS INTERESADAS DEBERÁN INSCRIBIRSE LLAMANDO POR TELÉFONO O POR MAIL

Tel:
943 481 471

E-Maila:
lankidetza_cooperacion@donostia.org

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun eta Lankidetza Atala
Sección de Igualdad y Cooperación